

2018

4. Herriko informazio aldizkaria



Auzapezaren hitza

Lehenik, proposatzen dauzuet bururatu berri den urtea gogoan har dezagun.

Euskal Hirigune Elkargoa (Euskal Elkargoa) 2017ko urtarrilaren 1.ean sortu da. Herriarteko egitura berri horrek lurraldeko 158 herriak biltzen ditu, eta 300 000 bizilagun inguru ordezkaten. Euskal Herriaren lurralde antolaketan, bertze urrats bat egiten ari da. 2017ko urtarrilaren 1.ean, lehengo elkargoen eskumen eta baliabide guziak (jende mailakoak, materialak, diru mailakoak) Euskal Elkargoaren esku utziak izan dira: garraio publikoak, trantsizio energetikoa, lurralde antolaketa, ekonomia, turismoa, laborantza, hizkuntza eta kultura politika. Bernadette POCHELUREkin (1. axuanta) gure iduriko inportantzia handia duten bi batzordetan lan egiterat engaiatu gira: laborantza eta turismoa.

Herriaren mailan, 2017an egin ditugun urratsak eta inbestizamenduak ezagutzea proposatzen dauzuet, aldizkari hunen bidez. Horretaz baliatzen niz obra horiek diruztatzen ausarki lagundu gaituzten egitura publiko guzien eskertzeko. Horri esker, nahiz eta estatuaren dotazioak ttipitu diren, gure azpiegiturak hobetzen segitzen ahal dugu, herritarren zergak emendatu gabe.

Bertzalde, biziki kontent niz, azken urteetan gure ama eskolako ikasleen kopurua beti goiti doala ikusirik. Buruileko eskola sartzean, 10 ikasle berri sartu zauzkigu. Horrek erakusten du gure herrian bikote gazteak plantatzen direla.

Azkenik, herriko eragile eta elkarte guziak ere eskertu nahi ditut, urte guzian gertakari aberats anitz antolatzen baitituzte: eskolen bestak, herriko bestak, Besta Berri, Arberoan ihes, pilota lehiaketa, birla lehiaketa, belota lehiaketa, muinoetako lasterkaldia, «oroimenak» eta «ontsa zahartzea» atelierrak, mintzaldi-etzabaidak, auzoaldeetako apairuak eta ahanzten ditudanak... Gertakari guzi horiek balio dute jendearen bakartzearen kontra lan egiteko, belaualdien arteko harremanen garatzeko, jin berri diren pertsonen integratzeko, bizilagunen artean elkartasun berri batzuen sustatzeko, eta herriko bizian denen parte hartzea laguntzen dute. Pozten nau eta goresmenak ematen dauzkizuet.

Herriko talde osoak enekin bat egiten du deneri urte on desiratzeko eta 2018ko agiantzarik hoberenak eskaintzeko. Desira berak adierazten ditugu gure herriarentzat, Donamartirin «elgarrekin ontsa bizitzea» beti izan dadin gure harremanen funtsa eta oinarria. Urte berri hau goxoki hasteko, agiantzen ospakizunerat gomitatzen zaituztegu, urtarrilaren 28an, igandearekin, Bil Etxea gelan. Ondotik, adiskidantzazko basoa edanen dugu.

2018ko URTE BERRI ON!

Informazio baliagarriak :

Herriko etxearen irekitze orenak: Asteartez: de 8:30tik 12:30 arte eta de 13:00tik 18:00 arte eta Ortziralez: de 8:00tik 12:30 arte eta 13:00tik 16:30 arte

Herriko etxea: 05 59 29 52 27 edo mairiearberoue@orange.fr

Antton Larraburu: 06 25 26 84 17

Bernadette Pochelu: 07 60 01 10 65

Alain Armendariz: 06 84 80 49 08

Mathias Mirande: 06 50 71 30 61

Bizilagunen kontaktetaren emaitzak: 328 bizilagun



Aitzinkontua

Funtzionamendu saila

GASTUAK (€)		DIRU SARTZEAK (€)	
Karga orokorrak (ura, edf, asurantzak, bide eta sareak...)	60 960	Kargen arintzea	13 200
Langile kargak	69 500	Zergak	132 000
Beste kudeaketa kargak (ordainsariak, erakundeei zergak)	26 340	Hornidurak eta diru laguntzak (baserrialdeko elkartasun hornidura)	68 700
Diru mailako kargak	6 500	Eraikinen diru sartzak	41 000
GASTUAK OROTARA	163 300	DIRU SARTZEAK OROTARA	254 900

Inbertsio saila

GASTUAK (€)		DIRU SARTZEAK(€)	
Materialaren erostea (baserak, hotzgailua, eskolako alkiak, liburutegiko afixatze taula)	3 100	BEZ diru-itzultzea	33 700
Bideak	44 200	Bideendako diru laguntza	26 100
Herriko eraikinak (eskola, gela, herriko bizitegi)	18 000	Herriko eraikintzat diru laguntza	72 100
Mailegua (Herria + SDEPA)	20 200		
GASTUAK OROTARA	85 500	DIRU SARTZEAK OROTARA	131 900

Lekuko 4 zerga zuzen	2016 urteko tasa	2017an bozkatutako tasak	2017ko zerga oinarriak	2017 produktuak
Bizileku zerga	16,29	10,71	269 200	28 831
Funts eraikiaren zerga	8,00	9,65	188 800	18 219
Funts ez eraikiaren zerga	25,27	27,34	27 100	7 409
Enpresen funts zerga	26,90			
OROTARA				54 459

Egoera zibila :



Sortzeak : Inaia HARISMENDY, Ethan POTVIN ELIZALDE, Charlotte MIREMONT, Lenea MENARD, Cattleya LETOURNEAU DUPIN



Heriotzeak : Jean Baptiste CURUTCHAGUE, Laurent POCHELU, Didier BOUTHORS, Frédéric, Régis, Dominique DUMANGE



E.I.Z.: Maylis BIDEGAIMBERRY eta Julien MINONDO

Diplômés 2017 :



Zorionak 2017an diploma lortu duten gazteei eta hain gazte ez direnei eta gure erreusitze agiantza guziak 2018an diploma bat lortzen entseatuko direnei !

Administrazioko urratsak :

ELKARTASUNEZKO ITUN ZIBILA (PACS)

2017ko azaroaren 1.az geroz, Auzapeza eskuduna da Elkartasunezko Itun Zibilaren deklarazteen, aldatzeen eta desegiteen erregistratzeko.



Elkartasunezko Itun Zibilaren deklaratzeko, partaide izanen direnek beren etxeko Herriko Etxearekin, edo notarioarekin, harremanetan sartu behar dute.

ADINGABEKOENDAKO LURRALDETIK ATERATZEKO BAIMENA

2017ko urtarrilaren 15az geroz, adingabekoendako lurraldetik ateratzeko baimena berriz emana izan da.

Orain, atzerrira bidaiatzera joaiten den haurra ez baldin bada bere guraso batekin bederen, agiri hauek baitezpadakoak izanen zaizkio :

Adingabekoaren nortasun agiri baliiodun bat : Nortasun agiria edo pasaporteia

Izenpetu duen gurasoaren nortasun agiriaren fotokopia, baliioduna edo 5 urte hauetan epez kanpo bilakatua: Nortasun agiria edo pasaporteia

Guraso aginpidea duen guraso batek izenpetu inprimakia

Lurraldetik ateratzeko baimen inprimakia (15646*01 CERFA) service-public webgunean deskargatzen ahal da.fr. Inprimaki horrek ez du Herriko Etxearen parte hartze beharrik.

NORTASUN AGIRIEN EMATEKO MOLDE BERRIAK

2017ko martxoaren 15etik goiti, datu biometrikoen biltzeko sistema -erran nahi baita pasaporteen tratatzeko tresna- duten herriek bakarrik dituzte nortasun agirien eta pasaporteen galdeak errezibituko eta bilduko.

Argibide gehiagoren ukaiteko, Donapaleuko edo Hazparneko herriko etxearekin harremanetan sartzen ahal zira.



Ez ahantz : 2017ko urtarrilaren 1az geroztik, nortasun agiri nazionalen baliozkotasun iraupena 15 urtekoa da. Neurri honek helduei emandako eta 2014ko urtarrilaren 1an oraindik baliozkotasuna zuten nortasun agiriendako ere balio du (erran nahi du 2004ko urtarrilaren 2aren eta 2013ko abenduaren 31ren artean emanak)

ERROLDA MILITARRA

1999ko urtarrilaren 1az geroztik, 16 urte dituzten gazte guziek haien bizilekuko Herriko Etxean erroldatuak izan behar dute haien hamaseigarren urtebetetzea egin ondotik hiru hilabete barne.



Herriko Etxeak Errolda agiri bat emanen die, baitezpadakoa dena atxikitzea.

Izan ere, agiri hau konkurtso eta azterketa ezberdinetan izena emaitako (Lanbide gaitasun agiria, Lanbide ikasketen brebeta,

Baxoa, gidabaimena etab...)

Erroldaren ondotik, gazteak Zerbitzu Nazionalaren Zentroak antolatzen duen Defentsa eta Hiritartasun Egunera deituak izanen dira.

HIRIGINTZA

Arkitekto baten beharra finkatzen duen mailaren apaltzea indarrean ezartzen duen erabakia 2016/12/14an argitaratua izan da.

2017ko martxoaren 1tik goiti pausatuak izanen diren eraikitze baimenak, zolan 150m²-ko eremua sortzen badute, arkitekto batek egin beharko ditu.

Eskola :

Donamartiri eta Donoztiriko eskolak biltzen dituen bateratzeak 25 ikasle errezibitzen ditu ama eskolan, 32 ikasle lehen mailan, beraz 57 haur.

2 herriak lehentasunezko eremuan sailkatuak direnez, haurrak 2 urtetatik goiti errezibitzen ahal dira, harrera baldintzak berriz eskuratuak baldin badira.

Marjolaine Le moine frantses erakasle eta eskolako zuzendariak eta Mailys Ihidoy euskarako erakasleak haurrak zaintzen dituzte egunero. Donoztirin, Caroline Etchebarme eskolako zuzendari eta Frantses irakasle gisa lanean ari da handienekin. Ama eskolako laguntzaileek, herriko etxeak enplegaturik, haurren laguntzan parte hartzen dute zaindegi, klase, jantegi, garraio eta eskolaldi inguruko jardueretan urte osoan zehar.

Familiek haurrak uzten ahal dituzte goizeko zaindegian Donamartirin goizeko 7ak eta erditarik goiti eta arratsetan 18:15 arte Donoztirin. Familiei euro bateko parte hartzea galdegina zaie arratseko zaindegiarendako. Denbora hau bi herrietako ama eskolako laguntzaileek zaintzen dute.

Eskola garraioari doakionez, Ikas Bide sindikatak deliberatu du autobus joan-jinak atxikitzea galdea egiten duten familiendako. Departamenduak hautatu du 2016ko iraileko sartzean prezio sistema berri baten plantan ezartzea zerbitzu honen erabiltzeko. Lehen zerga ordaintzaileek finantzatzen zuten, aldiz orain erabiltzaileak zerbitzuaren kostuaren %10a finantzatzen du. Neurri honen helburua kalitatezko zerbitzu honen iraunkortzea da, aldi berean familia bakotxari erantzukizunak emanez ; gastu berri hauetan familien laguntzeko, Donoztiri eta Donamartiriko herriek bukaerako zenbatekoaren parte bat berengain hartzea deliberatu dute.

Eskola sartzearaz geroz, haurrek Baionan den Bertakoa enpresak apailatu dituen platera berriak dastatzen dituzte. Platerak egunero ekarriak dira goiz bukaeran. (je vais rajouter des infos mais j'ai la plaquette à la mairie)

Azkenik, astelehen eta ortzirale guziz 15:00 eta 16:30 artean iragaiten diren eskolaldi inguruko jardueren kari, haurrek kanpoko animatzaileei esker eta ama eskolako laguntzaileei esker jarduera ezberdinak deskubritzen dituzte (esperientzia zientifikoak, antzerkia, mahai-joko sortzea, ipuinak, etab...). Aurten ere, belaunaldien arteko topaketak iragan dira Adin Ederra elkarteko kideekin. Herriko gazte eta zaharrek beti ber plazerra hartzen dute askari, dantza, kantuen inguruan elkarretaratzean...Partekatze memento aberatsak dira. Berriz eskertzen ditugu eta elkarretaratze hauek dinamika berean segituko dutela espero dugu.

Herriak parte hartzaile guziak zinez eskertzen ditu haurrendako egiten duten guziarendako.

ENSEIGNEMENT BILINGUE

ELEBIDUN IRAKASKUNTZA

HORAIRES TENOREAK

Lundi - Vendredi / Astelehena - Ostirala
08h45 - 12h00 / 13h30 - 15h00
Mardi - Jeudi / Asteartea - Osteguna
08h45 - 12h00 / 13h30 - 15h45
Mercredi / Astezkena : 08h45 - 12h15

Activités périscolaires Eskolaldi inguruko jarduerak

Facultatives et gratuites
les Lundi et Vendredi
de 15h00 à 16h30

Urririk
astelehen eta ostiral guziz
arratsaldeko 3etatik - 4ta erditarat

Accueil Garderie Haurzaindegia

Accueil de 7h30 à 18h00
Harrera 7:30tik 18:00ra

Services communaux Herriko zerbitzuak

Transport scolaire / Garraioak
Cantine municipale / Kantina
Garderie / Haurzaindegia

CONTACTS – HAREMANAK

Mairie de Saint Martin d'Arberoue
Donamartiriko Herriko etxea

☎ 05.59.29.52.27
mairiearberoue@orange.fr



Mairie de Saint Esteben
Donoztiriko Herriko etxea

☎ 05.59.29.42.31
comstesteben@wanadoo.fr



COMMENT S'INSCRIRE Nola egin izena emaiteko ?

Se rendre à la Mairie concernée
Tokiko Herriko Etxera joan



LES PARENTS dans la vie de l'école

GURASOAK eskolako bizian

Association de Parents d'Élèves HAURENTZAT HAURENTZAT gurasoen elkartera

Délégués des parents d'élèves
Gurasoen ordezkariak


apehaurrentzat@gmail.com

REGROUPEMENT PEDAGOGIQUE INTERCOMMUNAL HERRIARTEKO BATERATZE PEDAGOGIKOIA

ST MARTIN D'ARBEROUE - ST ESTEBEN
DONAMARTIRI – DONOZTIRI



ECOLES PUBLIQUES BILINGUES ESKOLA PUBLIKO ELEBIDUNAK



Bourg - Plaza
64640 St-Martin-d'Arberoue / Donamartiri




Bourg - Plaza
64640 Saint-Esteben / Donoztiri

ECOLE MATERNELLE
Ama eskola

Saint Martin d'Arberoue - Donamartiri
☎ 05.59.29.64.43
ecolestmartinarberoue@wanadoo.fr



1 Enseignante Française - 1 Enseignante Basque
2 classes - 2 ATSEM
Frantses irakasle - Euskarazko irakasle 1
2 ikasgela - 2 laguntzaile




ECOLE ELEMENTAIRE
Lehen mailako Eskola

Saint Esteben-Donoztiri
☎ 05.59.29.67.59
ecolestesteben@wanadoo.fr



1 Enseignante Française - 1 Enseignante Basque
2 classes
Frantses irakasle 1 - Euskarazko irakasle 1
2 ikasgela



PROJETS D'ÉCOLES
Eskolako proiektuak

Accueil possible des enfants de 2 à 3 ans, au mois de janvier sous certaines conditions / Urtarrilean, baldintza batzuen arabera, 2 eta 3 urte arteko haurrak errezibituak izaiten ahalko dira

Eveil par les sens / Gogoa piztu zentzuen bidez

Enseignement bilingue à parité horaire / Oren parekotasuneko irakaskuntza elebiduna

Mise en place d'ateliers autonomes / Lantalde autonomoak plantan ezartzea

Solidarité, partage, tutorat entre les enfants / Elkartasuna, partekatzea, tutoregotza haurren artean

Equipement informatique et numérique / Ekipamendu informatikoa eta numerikoa

Apprentissage d'une langue étrangère dès le CP / Atzerriko hizkuntza ikastea CPtik goiti

Pédagogie de projet sur l'année en lien avec les temps d'activités périscolaires / Urteko proiektu pedagogia eskolaldi inguruko jarduera denborei lotua

Aide individualisée par les enseignants / Irakasleen laguntza ikasle bakoitzaren arabera egokitua

S'ouvrir au monde par l'art, la culture et le sport
Munduari ireki, artea, kultura eta kirolari esker

Rencontres sportives et musicales / Kirol eta musika elkarretaratzeak
Projet école et cinéma / Eskola eta zinema proiektua

Activités périscolaires / Eskolaldi inguruko jarduerak

Sorties culturelles et patrimoniales / Kultura eta ondare ateraldiak

Randonnées et découverte du territoire / bilaldiak eta lurraldearen ezagutza egitea

Sorties piscines / Igerilekura ateraldiak

Laborantza eta ingurumena:

Mendiko suak :

Mendiko suak zorrozki arautuak dira eta baimena behar dute. Herriko batzordea urrian bildu da, Laborantza Ganbarako ordezkari bat han izanik. Bilkura hortan, su eman beharreko eremu bakotxeko arduradun bat izendatu da, araubide berriaren segitzeko gisan. Bertzalde, erabaki da borondate oneko pertsona orori dei egitea, laborarien laguntzeko eta, bereziki, oihan eremuen hobeki gerizatzeko. Borondatea duten pertsonen galdegiten zaie herriko etxeko idazkaritzaren abisatzea.

Oroitarazten dauzuegu, 2012/10/22ko Prefetaren erabakiaren arabera, sua ematen den egunean, mendiko suaren arduradunak Departamenduko Suteen eta Sokorrien Zerbitzua (*SDIS*) abisatu behar duela, 10:00ak baino lehen, 05 59 14 61 10 zenbakirat deituz, bai eta Jendarmeria ere, 17 zenbakirat deituz. Su ematen den momentuan, mendian su emateko baimena zurekin ukan behar duzu. Herriko etxean atzemanen duzu.

Liztor asiarrak:

Liztor asiarrak: gure lurraldean liztor asiarrak azkarki emendatzen ari baitira, erleak begiratu nahiz, Hazparneko Lurraldea eremuak erabaki du bolondres batzuei kofoinen suntsitzeko formakuntza ematea. Donamartiriko inguruendako, Alain ARMENDARIZekin harremanetan sartzan ahal zira, ondoko zenbakirat deituz: 06 84 80 49 08. Zerbitzua kitorik da eta ahal bezain fite jiterat entseatuko gira.

Inbertsioak :

Bide obrak :

Donamartiriko herri barnearen heinean, departamenduko bidea berriz egina izan da. Departamendu Kontseiluak obra horiek osoki diruztatu ditu. Karia hortarat, herriak herriko etxearen eta eskolaren aitzineko aparkalekuak berritu ditu. 8335 €-ko kostua izan da, orotarar, zergarik gabe. Herriko etxeak du dena ordaindu.



Behasiko bideko obren lehen zatia 28000 €-tarat heldu da. Departamenduak kostuaren % 40 bere gain hartu du.

Herriko Kontseiluak erabaki du herri barnearen eremua handitzea, bide seinaleak lekualdatuz. Eremu hori ikastolaren aitzineko seinale kliskariraino lekualdatu da. Gainerat, ibilgailuen abiaduraren ttipitzeko bi konkor egin dira, herriko bi eskolen aitzinean, haur eta burasoen segurtasunaren hobetzeko gisan. Departamendu Kontseiluak obra horiek osoki ordaindu ditu.

Eliza :

Eliza arauen arabera egokitzeko obrak egiten ari dira. Lehen zati bat egina da, muntadura elektrikoa berriturik eta sartzeko atarian harrizko lauzadura ezarririk.

Obra horiei esker, segurtasun batzordeak aldeko iritzia eman du, urrian.



Sareak :

Ur Edangarriaren sarea:

Behasiko auzoaldean, sareak ura galtzen zuen eta haren parte bat jabetza pribatuan pasatzen zen. Beraz, Arberoako sindikatak hodiak lekuz aldatu ditu, 750 metroko luzeran, suteen kontrako erreserbaren eta Biskarreta etxearen artean.



Elektrika sarea:

Elektrika sarearen berritzea eta segurtasunean ematea 2017an bururatu da, Muzutea eta Larrartia etxeen artean hari bihurtikatu ezarririk.

Orotarik

Bi lursailen salmenta

GUTIERREZ eta CZAJA jaun-andereek 4 zenbakidun lotea erosi dute herriko lotizamenduan

GUIBER eta POCHAT jaun-andereek 7 zenbakidun lotea erosi dute herriko lotizamenduan



Atelier numerikoak :

Zyber base ibiltaria Donamartirin zen azaroaren 2 eta 3an. Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluak du ekintza hori diruztatzen. Horren helburua da jende guziari informazioaren eta komunikazioaren teknologien konprenitzeko eta baliatzeko ahala ematea. Xedea da gaurko egunean belaunaldien artean agertzen den haustura numerikoaren ttipitzea. Zerbitzu horrek herritarrak laguntzen ditu tresna multimedia ezagutzen eta baliatzen; ikastaldian parte hartzen dutenendako, osoki kitorik da.

Jacques Birebont, numerikoaren alorreko Euskal Herriko animatzaile eta arartekoak jakin du ikasle bakotxaren esperantzei eta interesei ihardesten.

Donamartitarren parte hartze ederra azpimarratzen ahal dugu, ikastaldia beterik baitzen. Sortu den interesa ikusirik, ekintza hori 2018an berriz egingen da, hain segur.



Ondarkinen bilketaren erreforma

2017ko hondarra arte, Garbiki Sindikatu Anitzak zuen 16 herriren hondarkinen kudeaketaren ardura, hots, nonbait han 17 000 bizilagunena. 2018ko urtarrilaren 1.az geroz, eskumen hori Euskal Elkargoaren (Euskal Hirigune Elkargoaren) esku da.

Euskal Elkargoaren hondarkinen biltzeko zerbitzuaren optimizatzeko eta harmonizatzeko ikerketa bat abiatuko da, 2018an. Erreformaren plantan ezartzeko eskema orokorra (edukiak, obrak, diruztatzeko plangintza) egin behar da, beraz, Euskal Elkargoaren mailan, lurralde eremuekilako elkarlan hurbilean.

2016an, etxeko hondarkinak bizilagun eta urte bakotxeko 185 kg-rat heldu ziren. Hondarkin birziklatuak, aldiz, bizilagun eta urte bakotxeko, 77 kg-rat heldu ziren. Geroari buruz, xedea da etxeko hondarkinen % 20 eta 30 arteko heineraino heltzea.

Xede horren kausitzeko, bakotxak bere bereizketa praktikak hobetu beharko ditu:

1. Konpostaren egiteko usaia hartu. Konpost ontziak atzematen ahal dituzu, 10 €-tan, Garbiki Sindikatuan, 54, Francis Jammes karrikan, Hazparnen.



2. Edukiontzi horietan hobeki eta gehiago bereizi. Birziklatzearen hobetzeko, edukiontzi horiak ezarriko dira, etxeetarik hurbilago. Edukiontzi horietarik bakotxa guti gorabehera 8 etxerentzat erreserbatua izanen da eta 15 egun guziz hustua izanen da. Bereizketa edukiontzi bakotxaren erabiltzaileak ezagunak izanez, edukiontziaren barnean arazorik baldin bada, erakunde biltzaileak gutunaz seinalatzen ahalko du. Hala, komunikazioa hobetuko da. Bereizketaren erretzeko, etxe bakotxari bereizketa zaku batzuk emanen zaizkio, hondarkin birziklagarrien biltzeko eta bereizketako edukiontzi horira erretzeko eramateko. 2022tik goiti, jogurt ontziak, plastikozko estalkiak, airerik gabe paketatze zakuak, etab... birziklagarriak izanen dira. Etxeko hondarinen pisuak oraino ttipitu behar luke.



RÉFRIGÉRATEURS
CONGÉLATEURS



GRANDS
ÉLECTROMÉNAGERS



PETITS APPAREILS
MÉNAGERS



TALLES



DÉCHETS VERTS



PELOUSE



TOUT-VENANT



BRANDS / INERTES



CARTONS



TEXTILES



BOIS



MÉTAUX



HUILES DE VIDANGE



HUILES DE FRITURE



DÉCHETS D'ENTRETIEN
DES MÉNAGES



SOUVANTS
DILUANTS



ÉCRANS



CARTOUCHES ENCRE



PNEUMATIQUES



VERRES



PILES
ET ACCUMULATEURS



PILES BOUTONS



BATTERIES



LAMPES

3. Beiraren eta etxeko hondarkinen biltzeko lekuak herriko 3 gunetan banatuko dira: bilketa leku bat 80 etxerendako.

4. Etxeko hondarkinen edukiontzietan ez da gehiago bere lekuan ez den hondarkinik bota behar. Zoritxarrez, hemengo argazkian ikusten ahal duzu norbaitek loreontziak eta lore artifizialak bota dituela, hilerrien beheko aldean, hondarkin berdeekin batean...



5. Hondarkintegira erregulariki joan. Leku anitz hartzen duten hondarkinak eta hondarkin toxikoak hondarkintegira eraman behar dira; ez dira neholaz ere herriko edukiontzietara bota behar. Sailka bereizi hondarkinak (zura, burdineria, hondarkin berdeak...) bertze zerbaitearako baliatzen ahalko dira edo birziklatzen ahalko dira. Sobera ardua, hondarkintegira eraman behar liratekeen hondarkinak etxeko hondarkinen edukiontzietan uzten dira. Ondorioz, hondarkinak bertze zerbaitearako baliatzea ez da posible eta ingurumenean eragin biziki txarra dute.

HONDARKINTEGIAREN ORDUTEGIA:

Asteartea: 16:00etarik 19:00ak arte
Ortzeguna: 16:00etarik 19:00ak arte
Ebiakoitza: 10:00etarik 12:00ak arte eta
13:00etarik 17:00ak arte
Besta egunetan hetsia

Irekia den tenoretan, zaindariarekin harremanetan sartzan ahal zira, ondoko zenbakira deituz: 06 33 95 23 45.



Partikularrentzat, hondarkintegian sartzea kitorik da.

Denek ohartu behar dugu gure egun guzietako ekintzek inportantzia badutela, gure hondarkinen ttipitzeko, bereizteko eta baliatzeko.

2018ko urtarrilaren 23an, Lurreko Telebista Digitaleko (TNT) frekuentziak aldatuko dira

Frekuentzia aldaketa horiek hunkitzen dituzte telebista arrastelu itxurako antenaz (lurreko hertz sarearen bidez) hartzen duten ikusle guziak. Urtarrilaren 22 eta 23 arteko gauean Lurreko Telebista Digitaleko hedagailuetan eginen diren frekuentzia aldaketek telebista kate batzuen galtzea ekar dezakete. Beraz, arrastelu itxurako antena duten telebista ikusleek kateak xerkatu beharko dituzte. Hola, telebista kate guziak errekueratuko dituzte, frekuentziak aldatu ondoan. Bilaketa hori egitea biziki sinplea da, telebistako kontrolagailutik edo/eta Lurreko Telebista Digitaleko egokigailutik. Bilaketa hori arrastelu itxurako antena bati loturik diren etxeetako telebista guzietan egin beharko da. «Tutorial» bideo bat eta marken arabeko erabilera liburuxkak eskuragarri dira ondoko webgunean: recevoirlatnt.fr.

Arberoan Alaiki astialdi zentroa :

Aitzineko bi urteetako arrakasta ikusirik, «Arberoan Alaiki» astialdi zentroak (Aiherrako, Isturitzeko, Donoztiriko eta Donamartiriko herriek kudeaturik) lau herrietako 3 eta 13 urte arteko haurrak errezibitu ditu, uztailaren 10etik agorrilaren 18a arte. Berriz ere, Isturitzeko eskolak udako itxura hartu du. Joan den udan, astialdi zentroak 70 haur errezibitu ditu. Arduradunen taldea hola osatua zen: zuzendari izateko gaitasun agiria duen Carmen CARCELLER zuzendaria, animatzaile izateko gaitasun agiria duten 4 animatzaile eta formakuntzan diren 2 animatzaile.



Zentro elebiduna da eta hizkuntzen erabilera errespetatzen ditu, molde naturalean. «Hezkuntza berriaren», metodoetan oinarritzen da, erran nahi baita haurren ongizatean, haurren garapenean, eta molde guzietako jokoetan. Haurrak aktibitate momentu animatuak bizi dituzte, bai eta aktibitate autonomo momentuak. Materiala haurren esku da, egun guzian. Egonaldiaren denbora guzian, haurrek artikuluak, argazkiak eta bideoak astialdi zentroko blogean ezarri ahal izan dituzte.

Ateraldi batzuek zentroaren bizia aberastu dute, gai batzuen inguruan:

- Elkarrekin bizitzea, hirugarren adineko klubeko kideekin egin elkarretaratze batekin
- 20 000 legoa ozeanoaren azpitik, itsas museorat eta ozeanoaren hirirat eraman dituen ateraldi batekin
- Natura eta aurkikuntza, «Ttikientzat» zentroan pasatu egun batekin
- Sorginen eskolan, Marion aintziran iragan egun batekin
- Fort Lanta, WOW Parkeko abenturazaleekin
- Musika eta jende gorputza, Otsozelaian egin bisita batekin

Joan den udan, Donamartiriko 14 hurrek zerbitzu hori baliatu ahal izan dute.

Egiazko behar bati ihardetsiz eta burasoei zuzendu galdeketak ekarri erantzun baikorrak ikusiz, lau herriek deliberatu dute heldu den udan astialdi zentroaren aktibitatea segiaraziko zutela.

Hazparneko Lurraldeko hTHPa :

Hazparneko Lurraldeko Elkargoko kontseiluak Herriarteko Tokiko Hirigintza Plan (hTHP) baten eratzea agindu du 2015ko abenduaren 17an. 2017ko urtarrilaren 1an Euskal Hirigune Elkargoren sortzearen ondorioz, hTHPa Hiriguneak gidatzen du, "Hazparneko Lurraldea" lurralde eremuarekin eta tokiko hautetsiekin elkarlan estuan. hTHPren perimetroa ez da aldatzen eta dokumentuak 11 herrien mailan koherentzian ezarriko ditu garapen iraunkor, ekonomia, bizileku, hirigintza, eta laborantza eta ingurumen babes eremu mailako politika ezberdinak.

hTHPren aitzinamendua : Lurralde proiektua

Ikerketa fasea 2016ko uztailan hasi da. Lehen hilabeteak diagnostiko partekatua egiteko erabiliak izan dira, eta honi esker lurraldearen dinamikak ulertu ahal izan dira, bere perimetroaren heinean edo Euskal Herri mailan ere.

Diagnostiko honi esker hautetsiek lurralde proiektua eraiki ahal izan dute ondoko hamar urteendako, Antolamendu eta Garapen Iraunkorreko Proiektu (AGIP) batean idatziz agertzen dena. Dokumentu sintetiko eta estrategiko honek hautu politiko nagusiak erakusten ditu eta hTHPko etorkizuneko dokumentuen osatzeko oinarria da : Araudi grafikoa (zonakatzea), araudi idatzia eta antolamendu eta programaketa norabideak.

AGIP eztabaidatua izan da Elkargoko kontseiluan 2016ko abenduaren 22an, hiru norabide nagusi hauekin.

- Biztanleriaren harrera menperatu eta lurraldearen nortasuna babestu

hTHPak aurreikusten du ondoko 10 urtetan 1600 eta 1700 biztanle berriren errezibitzea. Hazparneko herri barnearen azkartzearekin betan, Beskoitze zerbitzu gune gisa atxikiko da, eta Aiherra, Lekuine, Heleta, Izturitze, Bastida, Makea, Lekorne, Donoztiri, Donamartiri hurbileko gune gisa. Lurralde garapenak hirigintza itxura ezberdinak hartuko ditu, herri barneen eta auzoguneen ezaugarrien arabera. Hirigintza garapena hautuak definituak izanen dira elementu: hiri eta gizarte aniztasuna bilatzeko, garraio kolektiboen eta mugikortasun goxoen erabilpena laguntzeko, eta ekipamendu eta zerbitzu nagusietara hurbiltzeko ahala emateko.

- Ekonomia mailako dinamika, laborantza eta turismo mailako jarduerak atxiki eta egituratu

Hautetsiek lurraldeko ekonomia gune nagusiak sendotu eta garatu nahi dituzte (Hazparne, Aiherra, Beskoitze), aldi berean beste herrien ekonomia mailako ahalmena azkartuz.

Bestalde, laborantzaren ekonomia lurraldearen antolamendu proiektuaren bihotzean ezarria da. Hiritartzeari lotua den eremu kontsumoaren mugatzeari esker laborantzako eremuak babestuak izanen dira. Hautetsien anbizioa nagusiki hazkuntzan oinarritua den laborantza sailaren laguntzea ere da eta sail hauen sustatzea : zirkuitu laburrak, tokiko eraldaketa, jadanik hor diren sormarken baloratzea, kalitatezko ekoizpenen eta hazkurri industriako jardueren laguntzea.

Azkenik, turismoari lotutako jardueren sustengua paisaiaren, naturaren eta kulturaren baloratzean oinarritzen da.

- Bizi ingurumena, paisaiaren eta ingurumenaren kalitatea babestu

Helburua bioaniztasunaren aldetik interes gehien duten natura eremuen babestea da (bereziki larreak eta mendietako belardi naturalak), bai eta ere natura, oihan, eta laborantza eremuetan identifikatuak izan diren jarraikitasun ekologikoak.

Paisaiaren babestea hola egine da: ondare eraikiari balioa emanez, herri itxura historikoak errespetatuz, Euskal Herriko nortasun arkitekturala eta Etxaldeari lotua dena atxikiz, Etxea bere laborantza testuinguruan ezarriz. Eremu batzu bereziki babestuak izanen dira, adibidez Arberoako ibarra edo mendi gainen eremua.

Ondoko epeak

2017an, AGIParen jarraian, lehen araudietan ezartzen lan bat hasia izan da, bereziki herriarteko proiektu honek 11 herriek dituzten berezitasunekin bat egin dezan. Zonakatze lan honek segituko du 2018an, antolamendu eta programaketa norabideen eta araudiaren idazketari lotua, lurraldearen eremu ezberdinen gaurko eta biharko antolamenduaren ezaugarri nagusien definitzeko. Hirituak diren eremuak, hirituak izanen diren eremuak, laborantza eremuak eta natura eremuak.

Elkar aditzea

Elkar aditzea hTHPren eratze fase guzian eramana da. Hautetsiekin, Estatuko zerbitzuekin, herritarrekin, eragile ekonomikoekin, etab.

Hainbat elkar aditze tresna plantan ezarriak dira :

- Bilkura publikoen antolaketa
- Argitasun elementuak eskuragarri ezartzea Hazparneko Lurraldea eremuko eta herrietako webgunean
- Dokumentuak eskuragarri ezartzea Lurralde Eremuko egoitzan eta Herriko Etxean
- Artikuluak elkargoko aldizkarian, herrietako aldizkarietan, tokiko prentsan
- Erregistro baten plantan ezartzea, Lurralde Eremuko egoitzan eta herrietan eskuragarri dena, prozedura guztiak irauten duen denboran, usaiako irekitze egun eta orenetan, interesatuak diren edozein pertsonendako.

Bilkura publikoak finkatuak izanen dira 2018 erditsutan lehen zonakatze, araudi eta antolamendu eta programaketa norabide elementuei buruz eztabaidatzeko. 2019 urtea hTHPren bururatzeko izanen da, eta orduan inkesta publiko bat antolatua izanen da proiektuari buruzko oharrak eta proposamenak biltzeko.

Edozein xehetasun edo galde osagarrirendako, zuen Herriko Etxeko idazkaritza deitzen ahal duzue.

Idatzizko galdera guztiak honat igorri behar dira :

Euskal Hirigune Elkargoa

Hazparneko Lurraldea eremua

Francis Jammes karrika, 54

64240 Hazparne

Uraren zikloari lotu eskumena

Uraren zikloari lotu eskumen berriak: 2018ko urtarrilaren 1.az geroz, Euskal Hirigune Elkargoak uraren zikloari lotu eskumenak segurtatzen ditu, Euskal Herriko 158 herrietan, bai ur edangarriaren ekoizpena eta banaketa, bai uholde arriskuen prebentzioa, bai ur garbitze indibiduala eta kolektiboa.

Euskal Elkargoak, politika publiko horien kudeaketaren bitartez, ur baliabidea begiratu eta hobeki zaindu nahi du, bai eta ur banaketa zerbitzu hoberena eta akats gabeko ur kalitatea segurtatu.

2018ko urtarrilaren 1.ean plantan eman den zerbitzua, zeinaren baldintzak ez baitira aldatu (prezioak barne), esperientzian, kalitatean eta lurraldeko erakunde guzien atxikitzean oinarritzen da. Zerbitzu horren oinarri nagusietarik bat abonatuenganik eta herrietatik hurbil izatea izanen da.

Trantsizioko epe bat izanen da 2018 hondarra arte. Horri esker, abonatuei eskaini zerbitzu molde berriak urraska plantan emanen dira.

Euskal Elkargoak komunikazio kanpaina bat abiatuko du, lurraldeko publikoei zuzendurik, aldaketa horien denboran, abonatuaren informatzeko eta laguntzeko. Lehen komunikazio kanpaina hori nagusiki lekuko prentsan egingen da, urte hondarra arte. Argibide gehiago eskuratzen ahalko duzu ondoko webgunean: communauté-paysbasque.fr.

Egonaldi zerga :

Araubideari jarraikiz, Euskal Hirigune Elkargoko Herriarteko Kontseiluak, joan den buruilaren 23an, Herriarteko Turismo Bulego berriak hunki 152 herrien 2018ko egonaldi zergaren harmonizatzea eta haren tarifen finkatzea bozkatu du.

Herriarteko Turismo Bulegoak lehengo Bidaxunerriko, Baxenabarreko, Hazparneko eta Bastidako lurraldeko, Ezpeletako eta Arrangoitzeko lurraldeko, Donibane Lohizuneko lurraldeko, Garazi-Baigorriko, Xiberoko eta Ahurtiko egiturak bateratzen ditu eta Bokaleko, Lehuntzeko, Mugerreko, Urketako, Hiriburuko eta Milafrangako herriak barne hartzen ditu. 2018ko urriaren 1.ean sortua izan beharko da.

Egonaldi zergaren eginkizuna Euskal Hirigune Elkargoko lurraldearen erakargarritasunaren hobetzea da. Hortarik atera sosa osoki erabilia da harrera, informazio eta promozio zerbitzuen ordaintzeko, bai eta lurraldeko ondarearen ezagutarazteko.

Egonaldi zerga pertsona eta gau bakotzeko ordaintzen da, urtarrilaren 1.etik abenduaren 31 arte, ostatalekua irekia den denboran, eta ostatu egiten dutenek biltzen dute, beren bezeroek ordaindurik, Euskal Hirigune Elkargoari lau hilabete guziz emateko:

- maiatzaren 20a aitzin, urtarrilaren 1.etik apirilaren 30erat joaten den epearendako,
- buruilaren 20a aitzin, maiatzaren 1.etik agorrrilaren 31rat joaten den epearendako,
- urtarrilaren 20a aitzin, buruilaren 1.etik abenduaren 31rat joaten den epearendako.

TARIFAK, PERTSONA ETA GAU BAKOTXEKO, urte guziko finkatuak izan dira, hemen idatzia den bezala:

Ostataleku mota eta kategoria	Egonaldi zerga, 2018ko urtarrilaren 1.ean
Turismoko 5 izarreko hotelak, turismoko 5 izarreko bizitegiak, turismoko 5 izarreko mublatsuak eta maila hortako sailkapen turistikoa duten bertze guziak	1.50 €
Turismoko 4 izarreko hotelak, turismoko 4 izarreko bizitegiak, turismoko 4 izarreko mublatsuak eta maila hortako sailkapen turistikoa duten bertze guziak	1.10 €
Turismoko 3 izarreko hotelak, turismoko 3 izarreko bizitegiak, turismoko 3 izarreko mublatsuak eta maila hortako sailkapen turistikoa duten bertze guziak	0.90 €
Turismoko 2 izarreko hotelak, turismoko 2 izarreko bizitegiak, turismoko 2 izarreko mublatsuak, 4 eta 5 izarreko uda herrixkak eta maila hortako sailkapen turistikoa duten bertze guziak	0.70 €
Turismoko izar bateko hotelak, turismoko izar bateko bizitegiak, turismoko izar bateko mublatsuak, 1, 2 eta 3 izarreko uda herrixkak, gomit etxeak, autokarabana aparkaleku eta aparkaleku turistikoak (24 oreneko epeka), eta maila hortako sailkapen turistikoa duten bertze guziak	0.60 €
Sailkatuak ez diren edo sailkatzekotan diren turismoko hotelak, bizitegiak, uda herrixkak	0.50€
Sailkatuak ez diren edo sailkatzekotan diren turismoko mublatsuak eta ostatalekuak	0.50€

Zehaztua da errealitatearen araberako egonaldi zerga bezeroari fakturatua zaiola eta haren etekina Euskal Hirigune Elkargoko arrakasta turistikoaren laguntzeko eginak diren gastuetan erabilia dela, osoki.

Errealitatearen araberako egonaldi zerga bezeroaren fakturan agertu behar da, nahitaez.

Hitza elkarteei emana :

Donamartiriko Adin Ederra :

Donamartiriko ADIN EDERRA elkarteak GENERATIONS MOUVEMENT federazioaren barnean da. 58 kide baditu.

Aktibitate bat baino gehiago baditu:

Aktibitate kulturala:

- Liburutegia, zeinak kide berriak erregulariki ekartzen baititu, laguntzaileek astean bi aldiz segurtatu permanentziei esker.
- Haurrendako liburu anitz, elebidunak, CDa dutenak...
- Lurraldeetako osagarri, hezkuntza eta prebentzio elkarteak (ASEPT) animatu «Ontsa zahartzea» atelierrak dozena bat pertsona motibatu ditu.
- OHOINTZAK, JUKUTRIAK eta konfiantza abusuak aipatu dituen mintzaldia, apirilaren 18an, CIAPA batzordeak parte harturik.

Joko alorreko aktibitateak:

- Petankan aritzeko elkarretaratzeak, AIHERRAekin, joan-jin, 2017ko ekainaren 26an eta buruilaren 28an.
- Belota lehiaketa, DENEI IREKIA, parte hartzaile berri batzuekin.
- Animazio desberdinetan parte hartzea; Arberoan ihes, herriko bestak, (aurten Besta Batzordeak apairuaren tenorea aitzinatzeko plazera egin dauku), ihiztarien bazkaria, gerlari ohien elkarte (11-11).

Bertze aktibitateak:

- Hilabete guziz, lehen asteartean, herriko salan elkartzen gira, joko desberdinetan aritzeko (belota, musa, jendarte jokoak, solasak, jakien dastatzea).
- Petankan entrenatzen gira, astean behin edo bi aldiz, aroaren arabera.

«GENERATIONS MOUVEMENTS» federazioak antolatu egunak; Elkarretaratzearen eguna, Donibane Garazin, uztailaren 1.ean eta Elkartasunaren eguna Sallespissen, 2017ko buruilaren 30an.

Ateraldiak, auzo herrietako klubekin (DONOZTIRI, AIHERRA eta IZTURITZE): DANTXARIA, bazkari-kabareta, maiatzaren 4ean; uso jatea Ozkaxen, goizean ORTZAIZEKO Arnabar saltegia eta arratsaldean MAULEKO espartin lantegia bisitaturik, 2017ko urriaren 11n.

Belaunaldien arteko aktibitateak: Urtearen bururatzeko, eskolako haurrek gomiatu gaituzte Aita Noel eta Olentzeroren errezibitzeko, ahantzi gabe pottoka ttipia. Beren animazioez loriatu gaituzte eta elkarrekin hartu askari goxo batekin bururatu da.

ONGI ETORRI kide berriei, 2018ko urtearendako (Biltzar Nagusia 2018ko OTSAILAREN 13an)

Besta komitea :

Besta Komiteak bilan baikorra egiten du 2017ko urteaz. Urtean barna antolatuak izan diren gertakari guzietan ohar biziki onak bildu dituzte. Arrakasta hori ez zen posible izanen herritarrak eskeetan ez balira eskuzabalak izan eta gertakari horietan parte hartu ez balute. Horrengatik, denak bihotz-bihotzez eskertzen zaituztegu eta esperantza dugu heldu den urtean ere holako kopuru ederrean eta hain gogotsu ikusiko zaituztegu. Gainerat, herritarrei zikiroko txartelak aitzinetik saltzeko sistema biziki preziatua izan da eta, beraz, heldu den urtean ere berriz hola egingen dugu.

Azaroan, bulego berria hautatua izan da. Hola osatua da:

- APHECETCHE Florian eta POCHELU Maitena, lehendakarikide
- POCHELU Maurine eta POCHELU Pantxika, diruzainkide
- LAMBURE Thomas eta JAUREGUIBERRY David, idazkarikide

2018ko urtean, gertakari andana bat izanen da:

- Usaiako ihauteriak otsailaren 10ean izanen dira. Karia hortarat, besta komiteak ogitarteko saltze bat antolatuko du, desfilea Donamartiriko plazatik pasatuko delarik.
- Lehen aldikotz antolatu ondotik ohar biziki baikorrak bildu baititu, San Patrick gaualdi bat egingen da, martxoaren 17an, ebiakoitzarekin, lehen partean Agus Craic-ek eta bigarren partean Cel3 taldeak animaturik.
- Sagardotegiko ateraldia ere berriz egingen da, aurten. Eguna urtarrilean jakinaraziko zauzue.
- Besta komiteak du Irulegiko Irratiaren aldeko eskea segurtatzen. Aitzinetik eskertzen zaituztegu, gure egunerokoa alaitzen duen irrati horri ekartzen diozuen sustenguarengatik.
- Herriko bestak uztailaren 6tik 8rat iraganen dira eta usaiako herritarren egunarekin bururatuko dira, uztailaren 14an, ebiakoitzarekin.

Baserrialdeko biltokia :

Biltokia (*Foyer Rural*) 1901eko legearen arabeko elkarte da. Horren xedea herriko biziaren sustatzea da, gisa anitzeko animazioak antolatuz, bereziki kirol, astialdi, kultura, hezkuntza alorretakoak.

Bulegoa 6 kidez osatua da: Nicolas ELISSALDE, Yvan CHAMBOLLES, Xabi THICOIPE, Agnès FORCADE, Philippe HAICAGUERRE eta Laurent BETBEDER.

2017ko urtean antolatu gertakariak:

- Zazpi probintzietako mus txapelketa: 12 talde baziren. Ondoko aldia 2018ko urtarrilaren 13an izanen da.
- Frantziako mus txapelketa: sailkatzeko lehen itzulia, herrian. Ondoko aldia 2018ko otsailaren 3an izanen da, ebiakoitzarekin.
- Esku huskako lehiaketa: urtarriletik apirilera iragan da eta 28 talde bildu ditu, 3 mailatan banaturik.
- Besta Berri: aro ederrarekin iragan da eta jende anitz bildu du, herritarren lanari eta parte hartzeari esker. Parte hartu duten guztiak eskertzen ditugu. 2018ko Besta Berri ekainaren 3an ospatuko dugu. Gurekin ari izan nahi duen pertsona oro ongi etorria da eta gurekin harremanetan sartzan ahal da, haren parte hartzea ahal bezain ontsa antola dezagun.



- Buruz buruko pala lehiaketa: 95 pilotarik baino gehiagok parte hartu dute, buruiletik abendurat. Lehiaketa hori, esku huskakoa bezala, Goxoki ostatuarekin elkarlanean antolatua izan da. Goxokikoak eskertzen ditugu.

Arberoan ihes: bigarren aldikotz egin da eta arrakasta ederra bildu du. Laguntzaileen lana, aro ederra, jende anitz jitea eta ikusgarrien kalitatea, osagai guziak baziren. Asteburu hori oroimenean geldituko zaku. Milesker bihotzetik lagundu eta sustengatu gaituzten guziei, bai eta parte hartu duten guziei. 2018koa prestatzen ari gara.

Mintzaldiak: Aurten, bi gertakari izan dira. Aldi oroz, jende multzo polita jin da eta mintzaldi eta solasaldi interesgarriak izan dira: *Demain* filmaren emanaldia, 2017ko martxoan, eta diru sortzeari buruzko mintzaldi bat, urrian. Heldu den mintzaldia 2017ko martxoaren 22an iraganen da. Gai anitz baditugu jadanik, aipatzeko prest, otsailean jakinaraziko dugu zertaz ariko giren.

- Muinoetako lasterkaldia (*Course des Collines*): azaroaren 19an egin da, beti eta jende gehiago bilduz. Aurten, 300 lasterkari baino gehiago izan dira, giro zinez onean, berrogei bat laguntzaileen parte hartzeari esker. Ondoko aldia 2018ko azaroaren 18an izanen da.



Agerkari hau baliatzen dugu biltokiak (*foyer rural*) antolatu animazioetan parte hartzen duten guzien eskertzeko.

Elkartearen xedea herrian gisa guzietako animazioak antolatzea izanik, bertze aktibitate batzuk ere antola ditzake noizbehinka, hala nola kontzertuak eta kantaldiak, antzerkia, ibilaldiak, mintzaldi-etzabaidak, etab...

Elkartean sartu nahi duen pertsona oro ongi etorria da, bistan dena. Elkartearen bizian parte hartzea, gure herri maitearen bizian parte hartzea da, bai eta ere jendea ikustea eta momentu goxoak pasatzea.

Beraz, gogoia baldin baduzu, ez duda.

Argibide ororentzat, bi lehendakarikideetarik batekin harremanetan sar zaitez:

Nicolas ELISSALDE 06 50 50 01 85 edo CHAMBOLLES Yvan 06.72.81.28.04

Haurrentzat burasoen elkartea

Herrien arteko Bateratze Pedagogikoak 57 ikasle biltzen ditu:

25 ikasle Donamartiriko ama eskolan eta 32 ikasle Donoztiriko lehen mailako eskolan

***Irakasle taldearen proiektuak:**

Herrien arteko Bateratze Pedagogikoko ikasleek, proiektu, ateraldi eta ikusgarri desberdinetan parte hartuko dute:

Ama eskolakoek, Proiektu Artistiko eta Kulturalaren kariatara, dantza egingen dute, ELIRALE konpainiako artistekin (ama eskolako burasoei zuzendu ikusgarria, apirilean), LODIKROKO album musikalaren inguruan. Bertze dantza ikusgarri batzuk, OA HUATEAK (azaroan) eta GRRRRR (otsailean). Objektuen antzerki ikusgarria, Baionan.

AMA ESKOLEN UDABERRIA kirol elkarretaratzea (lankidetzeta eta kontrakotasun jokoak), LASTERKA.

Askari erakusketa/jendarte jokoak (urrian).

Lehen mailako eskolendako ere, ondarearen inguruko jokoak eta haur kantariak, LASTERKA, askaria / eguberriko kantuak.

Lehen mailako ikasleendako, aurkikuntza egonaldia, Arcachongo badian, 3 egunez eta 2 gauez (Ama eskolako handien klasetik CM2 mailarat). Burasoei horren kontaketa egin zaie, askari baten kariatarat.

Musika klasiko kontzertu bat Baionan, eskola eta zinema (3 film urtean, Hazparnen).

Kinball jokoaren inimizioa eta LASTERKA kirol elkarretaratzea.

CP/CE1 mailakoentzat, gutunezko harremana, Bidarteko klase batekin, elkarretaratzea pentsatua da.

Urte hondarrean, ama eskolako handien klasekoak Donoztiriko klasean errezipituak izanen dira, goiz batez.

***Burasoen elkarteak plantan eman aktibitate proiektuak:**

Sartzeko bilkuran, burasoen elkarteko bulegoak kide berriak errezipitu ditu; hola osatua da:

BETBEDER LAURENT, DURRUTY CECILE, GOYENETCHE MAYALEN, LABASTIE ANA, LARREGAIN AUDE eta MIRANDE VIRGINIE.

Eskolari edo elkarteari buruzko argibide ororentzat, ez duda, gurekin harremanetan sar zaitez: apehaurrentzat@gmail.com

Irakasleen proiektuen burutzen laguntzeko eta diruztatzeko xedez, burasoen elkarteak aktibitateak plantan ematen ditu, urte guzian:

- bixkotx saltzea
- PUYODEBAT txokolateen saltzea
- egutegiaren saltzea
- mus lehiaketa, 2018ko urtarrilaren 21ean, igandearekin, Donamartirin
- kantaldia eta bertze proiektu batzuk gogoetatzeko ari gara
- mendi ibilaldia

HAURRENTZAT elkarteak bi eskoletako haurrei eskolako ateraldiak egiteko eta eskolako bizi baldintzak hobetzeko ahala ematen die. Horrendako, burasoen borondatearen eta parte hartzearen beharra badu, bulegoak finkatu aktibitate desberdinentzat. Burasoak eskertzen ditu, beren sustenguegatik eta beren gogo-zabaltasunarengatik, jakinez burasoen presentzia baitezpadakoa dela gertakari guzien burutzeko.

Elkarteak haurren kirol eta kultura ateraldien (ikusgarriak eta zinema...) ere diruztatzeko ahala ematen du, bai eta jokoen eta materialaren erosteko, gure haurren goxotasunarendako, eskolan dituzten lan baldintzen hobetzeko.

Elkarteak burasoak, herritarrak, Donostiriko eta Donamartiriko Herriko Etxeak eskertzen ditu, gure eskolari ekartzen dioten laguntzarengatik.

Eskolako Burasoen Elkarteko taldea

Arberoa Ikastola

Arberoa Ikastola, Donamartiriko Arberoa Ikastolan eskolatuak diren haurren burasoen elkarte da. Hezkonde nazionalaren ardurapeko eskola da, Euskarazko murgiltze sisteman oinarritzen dena.

2017.2018 ikasturteko sartzea 72 ikaslerekin iragan da.

2017 urtean ere, ekitaldi desberdinak antolatuak izan dira, Donamartirin eta ondoko herrietan, bi helburu nagusiekin:

-Ikastolako hiru langile, material eta proiektu desberdinen diruztatzeko.

-Herriko bizian orokorki parte hartzeko.

EKITALDIAK:

-Otsailaren 25an ihauteriak izan dira. Donamartiriko plazan ikastolako haurrek Batukada-Antzerki ikusgarria aurkeztu dute.



-Apirilaren 3an goizeko 5etan, Korrika Donamartiritik pasatu da eta aldi batez gehiago gure ikastolako haur eta famili aintzek ez dute ilunaz korrika egiteko parada huts egin! Jakin behar da bi egun goizago Arberoa Ikastolako delegazio bat Nafarroako Irunberri herrirat korrika egitera joan zela, parezkatur den Arangoiti Ikastolaren kilometroan.

-2017ko udaberrian zehar dokumental bat ikastolan filmatua izan da, komunikazio ez bortitzaz. Haur, erakasle, laguntzaile eta burasoen lekukotasunak entzungai. "Lepe Arberoan" izeneko DVD-a 12€tan salgai

atxemaiten ahal duzue, ikastolaren bidez.

-Maiatzaren 14an, burasoak Senpereko Herri Urratsen lan egitera joan dira. Besta handi horren etekinak Egoitza elkartearen alde joaiten dira. (Egoitza: ikastola guzien eraikuntzetaz arduratzen den egitura).

-Maiatzaren 27an, Akelarre talde mitikoaren azken kontzertua Hazparneko Mendeala gelan antolatua izan da. Hor ziren 2400 entzuleek ezin ahantzizko gaualdia pasatu dute.

-Hiruzango ibilaldi eguna, ekainaren 4an Urtsumendin antolatua izan da Hazparneko Ezkia ikastolarekin.

-Arberoa Eguna besta herrikoa ekainaren 24an Izturitzen iragan da. Lehenik ikastolako hurrek Deserriari buruzko komedia musikal bat eskaini dute, Xutik taldeko musikari batzuen konplizitatearekin. Ondotik bazkari alaitua eta taloak izan dira.

-Ondoko ikasturterat pasatuz, gure usaiatzeko ganer hustea Izturitzen iragan da, azaroaren 5an.

-Donamartiriko krossaren ondotik, talo salmenta ere izan da, azaroaren 19an.

-Abenduaren 10an, Eguberriko merkatua antolatua izan da Izturitzeko gelan. Tokiko artesau eta ekoizleen hobeki ezagutzeko parada, giro goxoan.

-Urtea bukatzeko, aurten Armendaritzen iragan da Eguberriko besta: Eguberriko kantuak plazan eman ondotik, bertsoak lagun, Ametseri buruzko ikusgarria aurkeztua izan da. Ondotik, gaualdia goxoan bukatzeko, trago bat partekatua izan da, arizale eta ikusle guzien artean.

IKASTOLA:

Euskarazko murgiltze orokorreko eskola da: hurrek bakarrik Euskaraz ikasten dute bigarren urtea arte, eta frantses hizkuntza pixkanaka sartzen da 2. urtetik goiti 5. urtean haurra elebidun izaitzeko gisan.

Eskolako proiektuaren oinarriak: komunikazio enpatikoa, autonomia eta nortasunaren garapena, ingurumenaren zainketa (ondarkinen bereixketa, baratzegintza, bio haskariak...)

Jakin zazue Arberoa Ikastolako ate idekiak 2018eko martxoaren 10an izanen direla.

2018an hasiko dira ere Ikastola berriko lanak: proiektua Egoitzaren esku da.

Jakin ere 2018ko irailan Arberoa Ikastolak bere 10 urteak ospatuko dituela. Horren ospatzeko izanen diren ekintzen berri ukanen duzue laster!

Xehetasun batzuentzat, ez duda, deitzen ahal gaituzue:

-Joëlle Thicoipe: 05.59.25.53.18

-Ainara Orbezu: 06.23.46.15.18

-Ikastola : 05.59.29.76.23

Erberua Kirolak

Lehendakaria: ETCHEPARE Emile

Aktibitatea: Indar Jokoak

Elkartea gure herriko eta inguruetakoko herrietako jendez osatua da, zeinek nahi baitute indar jokoetan parte hartu (sokatira, lasto altxatzea, orga altxatzea, ingude altxatzea, zaku eramatea, lokotx biltzea, trontza...). Elkarteko kideak astean bi aldiz entrenatzen dira, urtarriletik agorril hondarra arte. Urte guziz, elkarteak Frantziako txapelketan parte hartzen du, apirilean eta maiatzean, bai eta Baxenabarreko trofeoan, Donapaleuko jaialdian eta hainbat animaziotan.

Uda huntan, dozena bat erakustalditan parte hartu dugu, Euskal Herriko eta Landesetako hiri eta herrietan.

Ohargarri da bi erakustaldi egin ditugula egun berean, Lehengo Hazparne eta Arberoan ihes bestetan.

Lehiaketen aldetik

2017an, gure kideetarik batzuek Frantziako sokatira txapelketan parte hartu dute, 4ko taldeetan (320 Kg-koen mailan).

Taldea bigarren sailkatu da Baigorri egiten den Baxenabarreko trofeoan, Mathieu Aphecetche organo jokoan irabazirik eta Paxkal Larramendyk ontzi eramatea irabazirik.



Donapaleuko jaialdiko sokatira ariketan, gure taldeak ez du joan den urtean irabazi zuen titulua atxiki ahal izan, lehen tiraldia Jutsiren kontra galdurik, 6 minutu eta 20 segundoren buruan. Azkenean, hirugarren sailkatu da, Gabadiren kontra irabazirik, final ttipian, 5 minutu eta 30 segundoko tiraldiaren ondotik.

Orga jokoan, Mathieu Aphetcheren garaipena aipatzekoa da. Bere lehiakide guzietan irabazi die, 7 itzuli eginik. Sailkapen orokorrean, gure taldea 4. sailkatu da, podiumetik puntu bakar batean geldituz.

Azkenik, 7 probintzietako txapelketan, lau herritarrek Baxenabarre ordezkatu dute, Saran, joan den buruilean.

2018ko sasoiak hasiko da, astean behineko entrenamenduarekin, urtarrilaren 5ean, ortziralearekin, Donostiriko Sanoki ezker paretan. Indar jokoak ezagutu edo praktikatu nahi dituen pertsona oro ongi etorria izanen da.



Denek Bat :

Klubaren aurkezpena

Denek-Bat elkarteak pilota elkarteak dira, Armendaritze, Heleta, Iholdi, Landibarre, Mehaine, Donamartiri eta Donoztiriko pilotariak biltzen dituenak.

Gaur egun elkarteak 215 lizentziadun ditu esku huska eta neska / gizon sailetako palan, Euskal Herriko eta Landesetako kirol muntadura ezberdinetan (trinketa, ezker paretan, frontoia) ibiltzen direnak.

Urtero, kluba kirol emaitzez harro da ; alabainan, Denek-Bateko jokolariek emaitza biziki ederrak eskaintzen dituzte txapelketa ezberdinetan. 2017 urteko azkenak: talde batzu Frantziako eta Euskal Herriko txapelkunak izan dira plazan, trinketan eta ezker paretan maila guztiak kontutan hartuz. Hauetan titulu bat senior mailako 1.sailean, esku huska trinketan, M.Etcheverry eta T.Harismendy-rekin (azken titulua 1989koa zen).

Bada hainbat urte pilota eskolako ikasle kopuruak beti goiti doazela, eta gure trabatzaile eta hezitzaileen lan izigarri onari esker Denek-Bat elkarteak ausarki ordezkaturik da Euskal Herriko, Biarnoko eta Landesetako pilota lekuetan, azken emaitzek erakusten duten bezala.

Berri guztiak klubaren webgunean segitzen ahal dituzue,

www.denek-bat-pilotan.fr